



GAILUAREN ZIURTAGIRIAREN SERIE ZENBAKIA BERRESKURATZEKO JARRAIBIDEAK


1 Windowsen instalatutako ziurtagiriak kontsultatzea

1. Joan kontrol panelera – Interneteko aukerak.
2. Joan Edukia erlaintzera eta sakatu Ziurtagiriak





3. Egin klik bikoitza ziurtagiriaren gainean eta joan Xehetasunak erlaintzera




4. Azaltzen diren esparruen barruan topatuko duzu serie zenbakia.


2 Ziurtagiriak kontsultatzea nabigatzailearen bidez

2.1 Zure ziurtagiria Internet Explorerren edo txartelean instalatuta baldin badago, baina Internet Explorerrekin irekitzen badu, jarraitu honako urrats hauei:

1. Ireki Internet Explorer.
2. Sakatu Tresnak - Internet aukerak.




3. Joan Edukia erlaintzera eta sakatu “Ziurtagiriak” botoia.



4. Egin klik bikoitza serie zenbakia jakin nahi duzun ziurtagiriaren gainean.


5. Sakatu nahi duzun ziurtagiriaren Xehetasunak erlaintzean.




6. Esparruen zerrendan ikusi ahal izango duzu non adierazten den ziurtagiriaren serie zenbakia.

2.2 Zure ziurtagiria Firefoxen edo txartelean instalatuta baldin badago, baina Firefoxekin irekitzen badu, jarraitu honako urrats hauei:


1. Ireki Firefox.
2. Sakatu Tresnak - Aukerak.



3. Bilatu “ziurtagiriak” hitza.



4. Sakatu Ikus ziurtagiriak



5. Egin klik bikoitza serie zenbakia jakin nahi duzun ziurtagiriaren gainean.
6. Esparruen zerrendan ikusi ahal izango duzu non adierazten den ziurtagiriaren serie zenbakia.

Ziurtagiria

LAN-1225725	EAEko Herri Administrazioen CA - CA AAPP Vascas (2)	Izenpe.com
-----------------------------	---	------------

Hiritarraren izena _____

Herrialdea ES

Erakundea LANTIK

Erakundearen saila Gailu ziurtagiria - Certificado de dispositivo

Erakundearen saila LANTIK-PC-BATUZ-01

Erakundearen saila PC

Ohiko izena LAN-1225725

Jaulkitzailearen izena _____

Herrialdea ES

Erakundea IZENPE S.A.

Erakundearen saila AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA

Ohiko izena [EAEko Herri Administrazioen CA - CA AAPP Vascas \(2\)](#)

Balio-epea _____

Ez lehenago 20/07/2020, 13:59:47 (Europako erdialdeko ordu estandarra)

Ez ondoren 20/07/2030, 13:59:47 (Europako erdialdeko ordu estandarra)

Gako publikoaren informazioa _____

Algoritmoa RSA

Gakoaren tamaina 4096

Berretzailea 65537

Modulua B8:8D:28:D6:34:7A:37:8E:13:A0:0C:51:C1:AD:4C:11:91:88:F4:04:14:86:17:08:EC:FC:70:B1:4D:E1:13:8E:2F:1B:90:1F:85:79...

Hainbat _____

Serie-zenbakia 12:53:61:3D:73:9A:06:A4:5F:15:87:34:04:B3:39:42

Sinadura-algoritmoa SHA-256 with RSA Encryption

Bertsioa 3

Deskargatu [PEM \(ziurtagiria\) PEM \(katea\)](#)


7. Ziurtagiriaren serie zenbakia hamasetarrean adierazi behar da. Hortaz, “:” kendu eta guztia minuskuletara pasatu behar da.

Adibidea:

35:C3:A7:03:C6:B8:F2:2E:5F:15:87:4B:20:A9:56:F7 honakoa bihurtzen da:
35c3a703c6b8f22e5f15874b20a956f7

2.3 Zure ziurtagiria Chromen edo txartelean instalatuta baldin badago, baina Chromerekin irekitzen badu, jarraitu honako urrats hauei:


1. Ireki Chrome.
2. Sakatu Konfigurazioa.



3. Joan Pribatutasun eta Segurtasunera. Ireki Segurtasuna atala.



4. Sartu Ziurtagiriak kudeatu atalean eta egin klik bikoitza serie zenbakia jakin nahi dugun ziurtagiriaren gainean.



5. Esparruen zerrendan ikusi ahal izango duzu non adierazten den ziurtagiriaren serie zenbakia.